

SUKARRIETA / Udal Liburutegiak galdetegia prestatu du

Hilabete honen erdira arte herritarrek euren iritzia emateko aukera izango dute

G. Bilbao

Udal Liburutegiak urte amaierako galdetegia prestatu du, helburu argi batez. Hain zuzen, Liburutegiaren funtzionamendua hobetzeko herritarren proposamenak zeintzuk diren jakin gura dute, eskaintzen duten zerbitzua herritarren iritzietara egokitu ahal izateko.

Bertako langileek azaldu dutenez, urtarrilean herritarrek proposatutakoa aztertzen hasiko gara, ahal dugun neurrian aldaketak eta hobekuntzak egiteko.

Era guztietako galderak egin dituzte: zenbatero doazen liburutegira, zein zerbitzu erabiltzen duten, liburu bildumari edota ordutegiari buruz zer iritzi duten, posta elektronikoa eta webgunearen erabilera...

Iritzia ematen

Galdetegiaz gain, liburu bilduma hobetu asmoz, herritarrek erostea merezi duten hiru film, hiru CD eta hiru libururen izena emateko aukera luzatzen diete Liburutegiko arduradunek inkesta egiten dutenei.

Abenduan hasi ziren inkesta egiten eta urtarrilaren erdira arte galdetegia erantzuteko aukera izango dute bertaratzen direnek. Ostean, emaitzen berri emango dute.